



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
B I Z K A I A

PRENTSA-OHARRA

Urriak 30. Batzar Nagusietako Iraskunde-Batzordea

Bizkaiko Lurralde Mugapeei buruzko Foru Araugaiaren inguruko Erizpena onartu dabe Bizkaiko Batzar Nagusiek

Bilbon, 2012ko urriaren 30ean

Batzar Nagusietako Iraskunde-Batzordeak Bizkaiko Lurralde Mugapeei buruzko Foru Araugaiaren Erizpena onartu dau gaur eguerdian. Foru Araugaiaren Zioen Azalpenean esaten danez, Arauak "etorkizuneko lurralde-eredua finkatu nahi du, errealtate ekonomiko eta sozialera egokituta". Araua Osoko Batzarrean onartu beharko da indarrean sartu daiten, eta Bizkaiko Udal Mugarteei buruzko uztailaren 7ko 8/1993 Foru Araua ordezkatuko dau. Onartzen bada, Bizkaiko udalerriak mugatzeari eta zedarritzeari buruzkoak arautuko ditu, aukera emonaz aldaketak egiteko udalerrien lurralde-dimentsioan. Erizpenaren alde Euzko Abertzaleak Taldeak, Socialistas Vascos Taldeak eta Bizkaiko Talde Popularrak bozkatu dabe, eta Bilduk aurkako bota emon dau.

Lurralde-dimentsinoa finkatzeko arau barriak ezarteaz ganera, arau barriak Bizkaiko toki-erakundeen izena, armaria, banderea, titulu bereizgarriak eta udalburua arautuko ditu. Aurreko Foru Arauak ez bezala, oraingoan udalak izango dira bertan arautzen diran prozedura guztiak abian jarteko aginpidedunak. Aldundiak eskumena izango dau muga-lerroak eta bidarri-mugarriak ikuskarri eta egiazatzeko, eta egindako edozein aldaketak Batzar Nagusien onarpena izaten jarraitu beharko dau. Azkenean onartu dan testuan ez da agertzen Bilduk proposatutako zuzenketea, Araua ez daiten izan atzeraindarrezkoa eta 1988. urtean abierazotako Galdakaoko Usansolo auzoaren desanexinoari ez deion eragin. Socialistas Vascos Taldeak be horren alde egin dauen arren, ez da nahikoa izan Bilduren enmendakina onartzeko, Euzko Abertzaleak eta Bizkaiko Talde Popularrak aurka bozkatu dabelako.

Arauz Besteko Proposamenak

Foru Araugaiaren Erizpena onartzeko bozketak egin ondoren, hiru Arauz Besteko Proposamen eztabaidatzeari ekin jako. Lehenengoa Bizkaiko Talde Popularrak aurkeztutakoa izan da eta bertan eskatu gura izan jako Bizkaiko Foru Aldundiari "tresnak jarri dagizala, Urduñako udalagaz batera, Urduñarako Bideragarritasun Ekonomikorako Planen bat egiteko". Proposamen hori ez da bozkatu, popularrek eskatu dabelako Herri-Kontuen Euskal Epaitegiko Lehendakaria etorri daitela Batzordera bertara azaltzeko Urduñako Udalerririko 2009. urtekitaldiko ikuskaritza txostena, Epaitegiak berak egindakoa. Eskabidea Carmen Carrón batzarkideak egin dau, hain zuen be "gai horren inguruko informazio gehiago eukiteko". Eskabidea bozkatu egin behar izan da



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
B I Z K A I A

Batzordean, eta Bildu, Socialistas Vascos eta Bizkaiko Talde Popularreko batzarkideek alde bozkatu dabe, eta Euzko Abertzaleak Taldekoak abstenitu egin dira.

Horren ostean, Bildu Taldeak aurkeztutako Arauz Besteko Proposamen bat eztabaidatu da, hain zuzen be Bizkaiko Foru Aldundiari eskatzeko aztertu dagiala Errigoitiko Alkate dan Iñaki Madariaga jaunaren aukako hauteskunde-delituagaitik zabaldutako prozeduran pertsonatzea. Bilduren ustez, alkateak “legez kanpo” jokatu eban 32 pertsona erroldaratzeraoan azken udal hauteskundeen aurretik. Batzar Nagusietako gainontzeko Taldeek aurka azaldu dira, ulertu dabelako gertatutakoak besteren batzuk aztertu behar dituela. “Ez dagokigu guri” esan dau Iñaki Egaña taldeburu sozialistak. “Epaileak ebatzi dagiala, eta ez guk” esan dau Arturo Aldecoa ordezkari popularrak. Euzko Abertzaleak Taldeak gonbitea egin deutso Bilduri proposamena kentzeko eta probak aurkezteko epaitegian. “Probatu epaitegian salaketa horreek egia dirala eta kondenatua bada, neurriak hartuko doguz alderdian” esan dau Unai Rementería taldeburu jeltzaleak. Eta salatu egin dau Bildukoek “telebasuraren protagonista” dirala eta “auzi mediatikoa” hasi dabela.

Batzordeari amaiera emoteko Bizkaiko Talde Popularrak aurkeztutako beste Arauz Besteko Proposamen bat aztertu da, SADER enpresearen instalazioak Bilboko Zorrotza auzotik Bizkaiko beste lekuren batera aldatzeko aukerak azterzeari buruzkoa. Ekimen horri esker, Batzar Nagusiek eskatu egingo deutsie SADER enpreseari azterketa bat egitea inoizkoan Zorrotzako instalazioetatik Bizkaiko beste lekuren batera aldatzeko balizko kokaguneez, “hobeto aireztatuta eta uriguneetatik urrunagokoa izango litzatekena, gaur egun egon dagoan arazoa behin betiko konpontzearren, auzokideen eten bako kexak eragiten ditu eta”.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
B I Z K A I A

NOTA DE PRENSA

30 de octubre . Comisión Institucional de las Juntas Generales

Las Juntas Generales de Bizkaia aprueban el Dictamen del Proyecto de Norma Foral de Demarcaciones Territoriales de Bizkaia

Bilbao, a 30 de octubre de 2012

La Comisión Institucional de las Juntas Generales de Bizkaia ha aprobado este mediodía el Dictamen sobre el Proyecto de Norma Foral de Demarcaciones Territoriales de Bizkaia, que según la exposición de motivos del texto, “pretende determinar el modelo territorial futuro, adaptándose a la realidad económica y social”. Esta normativa, que tendrá que ser ratificada posteriormente en pleno para su entrada en vigor, sustituirá a la Norma Foral 8/1993, de 7 de julio, de Términos Municipales de Bizkaia. La nueva norma elaborada por la Diputación Foral de Bizkaia regulará las cuestiones que pudieran suscitarse en relación con la demarcación y deslinde de los municipios de Bizkaia, posibilitando cambios en la dimensión territorial de los mismos. El dictamen ha sido aprobado con los votos a favor de los grupos Nacionalistas Vascos, Socialistas Vascos y Popular Vizcaíno, y el voto contrario de Bildu.

Además de establecer nuevas reglas para el establecimiento de estos límites demarcatorios, la norma regulará el nombre, escudo, bandera y capitalidad de las Entidades Locales de Bizkaia. A diferencia de la norma anterior, los ayuntamientos serán ahora los agentes competentes para el inicio de todos los procedimientos que se regulan. Por su parte, la Diputación se reservará el derecho de inspección, conservación y reconocimiento de estos límites y las Juntas Generales de Bizkaia tendrán la potestad para seguir aprobando cualquier tipo de modificación en estas cuestiones. Al final, el texto definitivo no recogerá la enmienda del grupo Bildu que pretendía que la aplicación de la norma no tuviera carácter retroactivo con el objetivo de que no afectara al proceso de segregación del barrio de Usansolo (Galdakao), iniciado en 1988. El apoyo del grupo Socialista no ha sido suficiente para sacar adelante esta enmienda, ya que tanto el grupo nacionalista como el popular han votado en contra.

Proposiciones No de Norma

Tras la aprobación del Dictamen de este Proyecto de Norma Foral, ha llegado el turno de debate de las tres proposiciones no de norma. La primera, presentada por el Grupo Popular Vizcaíno, solicitaba el apoyo de la cámara vizcaína para instar a la Diputación Foral a “establecer los mecanismos para elaborar junto con el Ayuntamiento de Orduña un Plan de Viabilidad Económica para este municipio”. La votación de esta proposición no se ha producido, ya que los populares han solicitado al inicio una próxima comparecencia, en esta misma comisión, del Presidente del Tribunal de Cuentas Públicas para que explique el informe emitido por esta entidad fiscalizadora,



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
B I Z K A I A

en lo que respecta al ayuntamiento de Orduña, que corresponde al año 2009. Esta solicitud, planteada por la apoderada popular Carmen Carrón, lleva como fin “ampliar la información sobre el caso”. La propuesta ha recibido el visto bueno de la cámara al votar a favor de la misma los apoderados de Bildu, Socialistas Vascos y Populares Vizcaínos. Los junteros nacionalistas se han abstenido.

La Comisión Institucional ha debatido seguidamente una Proposición No de Norma del Grupo Bildu para que la Diputación estudie su posible personación en la causa abierta contra el alcalde de Errigoiti, Iñaki Madariaga, por delito electoral en las últimas elecciones municipales, al empadronar a 32 personas de forma “ilegal”, según consta en el escrito presentado por la coalición abertzale. Esta iniciativa ha sido rechazada por el resto de grupos de la cámara al entender que deben ser otros los que juzguen los hechos, manifestándose a favor de la presunción de inocencia de esta persona. “No nos corresponde” ha dicho el portavoz socialista Iñaki Egaña. “Que decida el juez, no nosotros” ha manifestado el representante popular Arturo Aldecoa. El grupo nacionalista ha invitado a Bildu a retirar la iniciativa y a presentar las pruebas en el juzgado. “Prueben ustedes esas graves acusaciones en los juzgados y si hay condena tomaremos medidas como partido”, ha indicado el portavoz nacionalista Unai Rementería, quien ha denunciado a los representantes de Bildu de ser “protagonistas de la telebasura” y de iniciar un “juicio mediático”.

La sesión se ha cerrado con la aprobación por unanimidad de una proposición del Grupo Popular Vizcaíno sobre la ubicación de la empresa SADER, situada en el barrio de Zorroza. A través de esta iniciativa, las Juntas Generales solicitarán a esta empresa la realización de un estudio sobre posibles emplazamientos alternativos para el traslado de su actividad a otro punto de Bizkaia que “reúna mejores condiciones de ventilación y mayor separación de áreas urbanas, a fin de solucionar definitivamente la problemática existente, que genera quejas vecinales de manera continuada”.